

ATEZAIN DEIALDIA – UHARTEKO UDALA

Alkatetzaren 2026ko urtarrilaren 12ko ebazpenaren bidez onetsia.

Deialdia egin da atezain lanpostu bat kontratatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, bitarteko kontratuarekin, baja mediko bat betetzeko eta lan araubidean.

Esptea. 79/2026

Uharteko Udaleko alkateak, 2026ko urtarrilaren 12an, deialdia onetsi zuen ondoko baldintza hauekin bat.

OINARRIAK

1.-Deialdia egin da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez **ATEZAIN** lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda bat hautaprobei bidez osatzeko.

Deialdi hau Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42 2.d) artikulua arautzen du. Haren bidez, Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak osatu ahalko dituzte.

D mailako langile bat kontratatuko da **behin-behineko kontratu baterako**, baja dela eta, lanaldi osorako. Berehala kontratatuko dira. Gainera, probak gainditzeko dituzten pertsonak aldi baterako kontratatzeko zerrendan sartuko dira, kontrataziorako barne-araudian ezarritako baldintzetan.

Probaldia bi hilabetekoa izango da.

Lanaldia araudi aplikagarrian ezarritakoa izanen da, baita opor, jaiegun, dieta eta gainerako eskubideen araubidea ere. Hala ere, lanaldia noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean. Ordutegia txandakakoa izango da: A- 7:30-14:50 eta B- 08:20-12:30 eta 13:50-17:00.

1.2. Bete beharreko eginkizunak Uharteko Virgen Blanca ikastetxe publikoko atezaintzari dagozkionak izanen dira, eta, kasuan kasu, Uharteko Kultur Etxekoak.

1.3. Lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen **D mailako** lansariak izanen ditu. Era berean, plantilla organikoan aurreikusten diren lansari osagarriak jasoko ditu, baita hitzarmen kolektiboz lor daitezkeenak ere.

2.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Probak hasten diren egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan sartutako estatu batekoa, langileen zirkulazio librea aplikagarria denean. Halaber, Espainiako nazionalitateko pertsonaren ezkontideak, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetakoek eta nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatuak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta eskubide hori duten adingabeak eta ezkontide gisa bizi ez badira, edo ezkontide gisa bizi ez badira, 21 urtetik gorakoak badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

d) **Eskola Graduatua, Lanbide Heziketako lehen mailako titulua edo baliokidea** izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

Eskatutako kategorian sartzeko ikasketa baliokideak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen lege- edo erregelamendu-xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) Langabezia edo enplegu hobekuntzan egotea eta **Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansarean edo beste enplegu zerbitzu publiko batean** inskribatuta egotea. Baldintza hori dagokion enplegu-zerbitzu publikoak emandako enplegu-eskaeraren frogagiria aurkeztuz justifikatuko da, eta frogagiri horrek indarrean egon beharko du.

f) **B2 euskara titulua** izatea, Nafarroako Gobernuak emandakoa edo ofizialki aitortutako titulu baliokidea.

g) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzearagozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.

Izen-ematea erregistro bidez egin behar da, instantzia orokor baten bidez, **urtarrilaren 19ko (astelehena) 12:00ak baino lehen**, webgunean (www.huarte.es), edo, bestela, zuzenean, udaletxeko bulegoetan, atezainaren deialdia adieraziz. Izena emateko orria bete behar da (II. eranskina), eta **NANA, titulazio akademikoa, euskarako titulua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko inskripzioa erantsi**.

Hautatzen diren eta aldi baterako kontrataziorako deitzen diren izangaiek baldintza horiek guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte, adierazten zaien unean, kontratua egin baino lehen.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izanen dira kontratatu. Haien jarduketa guztiak baliorik gabe geldituko dira, parte hartzeko eskabidean faltsukeriarik egonez gero izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Aurreko baldintzak probak hasteko egunari dagozkiola ulertzeaz gain, kontratua formalizatzeko orduan ere bete beharko dira.

Ez da kobratuko espedientea formalizatzeko tasa eta azterketa-eskubideak.

3.- Epaimahai kalifikatzailea.

3.1. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Alfredo Arruiz Sotés, Uharteko Udaleko alkatea edo honek eskuordetzen duena.

Idazkaria: Gustavo Jiménez Martín, Uharteko Udaleko giza baliabideen kudeatzailea edo haren ordezkaria.

Mahaikidea: Txemari Zurbano Peñas, Uharteko Udaleko zerbitzu anitzetako arduraduna edo hark eskuordetzen duena.

Mahaikidea: Juan Andrés Viedma Feligreras, Uharteko Udaleko administrari-ofiziala edo haren ordezkaria.

Batzordekidea: Langileen legezko ordezkariak izendatu beharrekoa.

3.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

3.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduez sor daitezkeen arazo guztiak.

3.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake probarako.

4. Deialdi honetan bi proba egingo dira, egun berean, bata bestearen ondoren.

- Test moduko proba bat
- Azterketa praktikoa

Test motako azterketan atezaintza, instalazioen oinarrizko mantentze eta zerbitzu anitzetako lanekin eta, oro har, Uharteko geografia eta historiarekin zerikusia duten galderak egingen dira.

Proba praktikoa lanpostuarekin zerikusia duen proba labur bat izanen da.

Azterketa Kultur Etxean egingo da, zerrendak argitaratzean argitaratuko den egunean. Nolanahi ere, kontratazioa presakoa denez, urtarilean egingen da.

Azken kalifikazioa lortzeko, izangai bakoitzak bi faseetan lortutako puntuazioak batuko dira.

Izangaiek bi egun balioduneko epea izanen dute bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak egiteko.

5.- Azterketa gaingitu dutenen zerrenda eta deialdia.

5.1. Proben kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Uharteko Udalaren iragarki oholean eta www.huarte.es webgunean argitaratuko du gaingitutakoen zerrenda, lortutako puntuazio osoaren arabera, eta alkateari bidaliko dio, hark onar dezan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera. Gaingitzen dutenek, gainera, etorkizuneko aldi baterako beharrak betetzeko zerrendan sartuko dira, betiere udalaren araudiaren barruan.

Berdinketarik gertatuz gero, zozketaz ebatziko da.

5.2. Kontratututako pertsonen alta emango zaie eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuko dira. Beraz, horien kargura izango dira dagokien kuota eta P.F.E.Z.aren atxikipena. bidezko diren zenbatekoetan. Pertsona hautatuek Sexu Delituen Ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute kontratazioari ekin aurretik.

6.- Errekurtsoak. Deialdi honen, bere oinarrien eta aplikazio egintzen kontra, errekurtso hauetako bat paratzen ahalko da, hautara:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahalko da, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Uharte, 2026ko urtarrilaren 12a.-Uharteko Udaleko Alkatea, Alfredo Ruiz Sotés jauna.

ANEXO II: SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN

EN LA CONVOCATORIA PARA EL PUESTO DE CONSERJE DEL AYUNTAMIENTO DE HUARTE.

Don/Doña mayor de edad, provisto/a de Documento Nacional de Identidad número (o carta de identidad equivalente) y nacido/a el día de de, natural de (.....), con domicilio actual en (.....)

Calle..... código postal teléfono
..... teléfono móvil

mail

Expone:

Que solicita ser admitida a la convocatoria de CONSERJE del Ayuntamiento de Huarte.

Que no padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio del puesto.

Que no está incurso en ninguna de las incapacidades establecidas en las disposiciones vigentes.

Que no ha sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública, ni está inhabilitada para el ejercicio de las funciones públicas.

Que reúne todos y cada uno de los requisitos exigidos, referidos a la fecha de expiración del plazo señalado para la presentación de solicitudes y que aporta la siguiente documentación:

- Fotocopia de DNI.
- Titulación que acredite el nivel de estudios exigido para la convocatoria.
- Titulación que acredite el nivel de euskera exigido para la convocatoria.
- Justificante de demanda de empleo.

Que acepta que las notificaciones relativas a esta convocatoria de contratación se realicen de manera válida en la dirección de correo electrónico arriba indicada.

Que autoriza al Ayuntamiento de Huarte a acceder a sus datos personales para comunicaciones relacionadas con la convocatoria.

Que acepta el almacenamiento, custodia y tratamiento de estos datos personales, al objeto de tramitación de esta convocatoria y para la gestión de las listas de contratación que puedan surgir de la misma.

Por lo expuesto,

Solicita la admisión de la presente solicitud y la participación en la convocatoria referida.

Huarte, a de enero de 2026.

(Firma)